

## ZAINDU NAZAZU (GUTXIENEZ) BI ORDUZ!

ELAn argi daukagu zaintza sistema izan behar dela gizarte ereduaren eztabaidaren muina: nolako zaintza eredu, halako gizarte. Egungo zaintza sistema, ordea, emakumeon esplotazio eta diskriminazioan oinarritzen den sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren eredu oinarritzen da, bai lantokietan, baita etxean ere. Zoritxarrez, zaintzaren kalitatea, arreta eta denbora lausotuta geratzen dira, ia desagertu arte. Ondorioz, baita zaintza eta arreta behar duen pertsona ere.

Horren aurrean ELAk helburu argia dauka: Hego Euskal Herriko zahar egoitzen egoera hobetu. Horretarako, lehenik eta behin, egoera bera aztertu dugu, alegia, adinekoen zaintzari dedikatzen zaizkion denborak eta ratioak (zaintzaile kopurua pertsona bakoitzeko) neurtu ditugu. Emaitzek, zoritxarrez, gure aurreikuspenak konfirmatu besterik ez dute egin.

**Zaintzaileen** ratioen egungo azterketa herrialdez herrialde egin da. Ondorengo taulan egoiliarri egunero eskaintzen zaion ordu kopurua agertzen da. Horren aurrean, egunean, gutxienez, bi orduko dedikazioa eskaintzea eskatzen dugu:

HERRIALDEA	EGUNGO EGOERA Zaintza denbora/ pertsonako	GUTXIENGO ALDARRIKAPENA
GIPUZKOA	92 min/eguneko	<b>%30 gehikuntza</b>
BIZKAIA	60 min/ eguneko	<b>%100 gehikuntza</b>
ARABA	88 min/eguneko	<b>% 41 gehikuntza</b>
NAFARROA	88 min/eguneko	<b>% 41 gehikuntza</b>
<b>EGOILIARRA 2 ORDUZ (120 min) EGUNEAN GUTXIENEZ ZAINDUA IZATEA</b>		

Beraz, kategoriaz kategoria ondorengo aldarrikapen zehatzak proposatzen ditugu:

KATEGORIA	GUTXIENKO ALDARRIKAPENA
ZAINZAILEA	2 ordu pertsonako egunean
ERIZAINA	Eguneko 24 orduetan
GARBITZAILEA	% 53a gehitzea
SUKALDARIA	Bat 50 egoiliarrentzat

ELAn behin eta berriz salatu dugu adinekoen egoitzetako langileok egunero egin beharreko lan zama izugarri handia dela; baita horrek zaintzaren kalitatean duen eragin kaltegarria ere. Alde batetik, egoiliarrak zaintza duina jasotzeko behar duen dedikazioa eta kalitatea ez dira inondik inora bermatzen; ondorioz, bere oinarritzko premiak asetu gabe geratzen dira. Bestetik, langileek pairatu behar duten lan kargek eta erlojuaren menpeko lan erritmo basatiek izugarritzko galerak eragiten dizkiete euren lanean eta osasunean.

Aipatutako egoera erabat orokortua dago Hego Euskal Herriko adinekoren egoitzatan. Ezin ahaztu erakunde publikoek eta alderdi politikoek dekretu eta legedia desberdinak erabiliz hartutako erabakien ondorio zuzena dela hau.

Erabaki horiek RATIOetan ezartzen dira, alegia, zenbat langile edo denbora dedikatzen zaion zeregin bakoitzari: zaintzari, erizaintza lanei, egoitza garbitzeari, edota janaria sukaldatzeari, besteak beste.

Azken urteotan langileok behin eta berriz eskatu dugu ratioak igotzea, gizartea gero eta zaharragoa den heinean, gero eta gehiago direlako menpekotasun egoeran dauden pertsonak, eta gero eta anitzagoak profilak. Ondorioz, beharrak ere handiagoak eta konplexuagoak dira. Hori dela eta, ratioak egokitzea aldarrikatu dugu lan baldintzak arautzeko dagozkigun esparruetan; patronalak, ordea, esparru horietatik kanpo utzi nahi izan ditu, aldarrikapen hauen negoziaketa esparruak beste batzuk direla argudiatuz.

Egoeraren larritasuna ikusita, eta herrialde bakoitzeko errealitate desberdinak kontuan izanik, ELAk azterketa sakona egin du. Datu horietan oinarrituta, RATIOEN gehikuntza eskatzeko KANPAINA jarri du abian.

Azterketaren emaitza ondorengo tauletan jasotzen da; baita ondorioak eta gutxieneko aldarrikapen zehatzak ere.

Zaintza, zainduak eta zaintzaileak zaintzeko bidean, honako hau eskatzen diegu Hego Euskal Herriko erakunde publikoei, Eusko jaurlaritzari, Diputazio eta Nafarroako Gobernuari:

- Zaintzari merezi duen aitortza egin diezaiotela, horretarako behar diren baliabideak bideratuz.
- Gizartean gero eta behar handiagoak diren heinean, ratioen legedia eta dekretuak berriztea eta egungo egoerara egokitzea.
- Ratioen eguneraketak prekarietatetik aldentzen den kalitatezko enplegua sortzea; lan baldintza duinak eta soldata arrakalaren egoera deuseztatuko duena.
- Menpekotasun egoeran dauden pertsona eta langileak zaintza sistemaren erdigunean jartzea.

**Bilbon, 2019ko otsailaren 11n**

**#M8GrebaFeminista**  
**M8rako bidean, ELAtik aldaketak loratuz!**